

Latzenen agur isila

Oñatiko 'metal' taldeak iragan abuztuaren 13an eman zuen azken kontzertua



Latzen taldeko kideak, bigarren diskoaren aurkezpen egunean.

Gorka Erostarbe / Donostia

«Bagoaz, eta ez etorri ginen bezala. Zaratarik atera gabe, isiltasunean». Latzen taldeko kideek modu horretan azaldu dute beren agurra, prentsa ohar baten bidez. Sei urtetan makina bat kontzertu eman eta iraupen luzeko bi disko argitaratu ostean, talde bezala egitiko ibilbideri amaia jartzea erabaki dute oñatiar musikari hauek.

ABUZTUAREN 13a egun seinatua izango da hemendik aurrera, bai Latzeneko kideentzat, bai eta taldearen jarraitzaile ugariarentzat ere. Izan ere, egun horretan —hilaren 13a, eta ostirala, gainera— eskaini baitzuten azken kontzertua, Nafarroan, Arantza herrian.

1995ean, Euskadi Gazteko entzuleen saria jaso ostean eta Egin-txotx kontzertu handian ere garaile izan ondoren, indar handiz ezagutarazi zen Oñatiko talde hau Euskal Herri osoan. Indar eta sonarik ez zitzairen falta izan orduan. Agurra, berriz, igorritako prentsa oharrean diotenez, zarata handirik atera gabe egin nahi dute: «Agurreko kontzerturik gabe, prentsaurreko ofizialik gabe».

Taldea desagertzeko arrazoiaren artean ez dela arazo pretsonalik ezta musikalik ere izan azpimarratu dute Latzenekoek. «Bizitza kableen amaraunetik at egiteko

gogoia eta kuriositatea baizik. Gure gorrotoa, amodioa edo ideiak lau haizeetara zabaltzen dituzten anplifikagailurik gabe. Dena den, hauek gure baitan izango dira».

Esker oneko hitzak

Arantzan emaniko kontzertuarekin, «Euskal Rockaren entziklopediaren orri bat» itxi dutela adierazi dute oñatiarrak, «argitaratuko dutela espero dugun entziklopediaren orria». Halaber, garbi utzi

nahi izan dute orri hori ez dutela 200 kontzertu eta milaka diskoren salmentek osatzen, «sei urtetako bizipenak eta sentimenduek, ilusio eta zapuzteek baizik».

Esker oneko hitzak ere izan dituzte Latzen taldekoek agurraren berri emateko orduan: «Batetik gugan sinistu duzuenoi eta urteotan sostengatu gaituzuenoi. Bertetik, eta bereziki, gure kontzertuetara etorri zaretenoi eta eta gure diskoak erosi dituzuenoi».

Bi disko sei urtetako ibilbide oparoan

■ DUELA sei bat urte hasi ziren elkarrekin jotzen Latzen taldekoak, hamazortzi urte zituztela. Lehen maketa grabatzeko aukera Carlos Krea-torren estudioan izan zuten, eta ongi profitatu zuten aukera hura.

Heriotzari deika izenburuko maketa

aurkezpen gisara erabiliz, Euskadi Gazteko entzuleen saria eta Egin-Txotx kontzertu erraldoi-koa ere eskuratu baitzuten. Ondoren, 1996ko azaroan, *Kontzientzia ala infernua* lehen diskoa argitaratu zuten Oihuka disketxearen eskutik. *Lazta-*

na, Zeingo xu?, edota *Metal eraso* abestiek aparteko sona erdietsi zuten.

Iraupen luzeko bigarren lana bi urte beranduago heldu zen; 1998ko maiatzean, hain zuzen ere. *Ardi larruz* zuen izenburutzat disko berri hark eta, aurrekoa bezala, Oihu-

kak kaleratu zuen, eta Kaki Arkarazoren laguntza izan zuten.

Hala, makina bat disko saldu eta hamaikatxo kontzertu eskaini ostean, euskal *metala*-ren azken urteetako ordezkari nabarmenetako baten agurra iritsi da, isilik.

Fermin Muguruza
Dub Manifest
aurtengo azken
kontzertuak
prestatzen ari da

■ Naonedeko

*Le Champ du Rock
Festival-en ariko da,
besteak beste*

Erredakzioa / Donostia

FERMIN MUGURUZAREN *Brigadistak Sound System* diskoak dagoeneko oihartzun zabala izan du, eta bai kritikak eta bai entzuleek oso txalotu dute. Hiru hilabete igaro dira argitaratu zenetik, eta jada 25.000 ale saldu dira mundu zabalean. Bitartean, taldea lan berria eza-gutarazten ibili da herriz herri eta agertokiz agertoki. Estatu Batuetan, Mexikon, Galizian eta Euskal Herrian jo ostean, orain aurtengo azken kontzertuak prestatzen ari dira.

Hasteko, irailaren 2an Andoaingo Gaztetxean ariko dira bertako kontzertu aretoa berritzeko beharrezkoa den dirua biltzeko asmoz. Ondoren, Britainia eta Frantzia izango dute helburu; bertan, nazioarteko bi jaialditan hartuko dute parte. Irailaren 3an Marmanden izango dira, Hypocrisy Stop! jaialdiaren barruan, eta, besteak beste, Macka B, Mad Professor eta Natacha Atlas taldeekin batera joko dute. Irailaren 4an, berriz, Naonedera joango dira, Atari Teenage Riot, The Skatalites, Dominique A, Macka B eta Natacha Atlas taldeekin batera Le Champ du Rock Festival-en jotzeko. Amaitzeko, irailaren 24an Parisko Fahrenheit areto mitikoan ariko dira.

Irailaren 21, 22, eta 23an Madrilen izango dira, Suristan aretoan hain zuzen ere. Bira Italian amaituko dute, bost kontzerturekin: irailaren 28an Perugian, 29an Bergamon, 30ean Genoan, urriaren 1ean Milanen eta 2an Erroman.

I G K I M E K E K 3 3 2 2 2			
31 x 33 mm 31 x 33 M UL (r - N f rr) E un 2.1 st (un) 1. 2 st (12 un) 1.5 Hl t (2 un) 1.1	31 x 33 mm 31 x 33 M UL (l rr l) E un 1. st (un) 2.1. 2 st (12 un) 1. Hl t (2 un) 55.1.	x 33 mm 2 M UL (E z r k rr) E un 5. st (un) . 2 st (12 un) . Hl t (2 un) 2.	IUN EAN Jendea behar da plazak esatzeko. EITU 7